Nazioarteko foroetan eta sareetan presentzia.	**6**	Presencia en foros y redes internacionales.
Ingurumen-boluntariotzarako proiektuak, irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek eta udal-erakundeek garatutakoak.	**10**	Proyectos de voluntariado ambiental desarrollados por entidades privadas sin ánimo de lucro y por entidades municipales.
Ingurumenaren aldeko boluntariotzan diruz lagundutako proiektuen parte-hartzaileak.	**500**	Participantes de los proyectos de voluntariado ambiental subvencionados.

PROGRAMA

5121 URAREN PLANGINTZA ETA ADMINISTRAZIOA

PROGRAMA

5121 PLANIFICACIÓN Y ADMINISTRACIÓN HIDRÁULICA

ARDURADUNA

EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA
INGURUMEN SAILBURUORDETZA

RESPONSABLE

DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
VICECONSEJERIA DE MEDIO AMBIENTE

MEMORIA

Ekainaren 23ko 1/2006 Uraren Legeak bere II. Kapituluan, EAEko uraren politika gauzatzeko bitarteko nagusia izango den Uraren Euskal Agentzia, zuzenbide pribatuko ente publikoa, sortu eta arautzen du. Bestalde, abenduaren 18ko 240/2007 Dekretuak ente publiko horren estatutuak onartzen ditu; eta martxoaren 10ko 25/2015 Dekretuak, Uraren Euskal Agentziaren jardueren hasiera arautzen du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren baliabide pertsonalak eta materialak agentzia horri atxikitzeko baldintzak ezartzen ditu.

La Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas, crea y regula en su Capítulo II la Uraren Euskal Agentzia/Agencia Vasca del Agua, como Ente Público de derecho privado, llamado a constituirse en el instrumento central para llevar a cabo la política del agua en Euskadi. Por otra parte, el Decreto 25/2015, de 10 de marzo, aprueba los Estatutos del referenciado Ente Público y es el Decreto 233/2007 de 18 de diciembre, quien regula el inicio de actividades de la Uraren Euskal Agentzia/Agencia Vasca del Agua, estableciendo las condiciones de adscripción de los medios personales y materiales de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco a la misma.

Agentzia izango da erakunde arduraduna, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari uraren alorrean dagozkion eskumenen eremuan, eta beraz, 1/2006 Legearen 7. artikuluan ezarritako zereginak beteko ditu.

La Agencia, como entidad responsable en materia de aguas en el ámbito de las competencias que corresponden a la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, ejerce las funciones indicadas en el artículo 7 de la Ley 1/2006.

Agentziak 1/2006 Legearen 3. artikuluan jasotako printzipio orokorren arabera gauzatuko du bere jarduera: bereziki, erabiltzaileen partaidetzarako printzipioaren arabera, bere zereginen eta eskaintzen duen zerbitzuaren eraginkortasuna bermatuz, eta beste administrazio batzuei dagozkien eskumenak direla-eta, elkarlaneko gobernantza eta erakundeen artean ahalik eta gehien koordinatuz, administrazio guztien arteko koordinaziorako eta lankidetzarako bideak garatzeko ahaleginetik abiatuta.

La Agencia desempeña su actividad de acuerdo con los principios generales señalados en el artículo 3 de la Ley 1/2006 y en particular, garantizando la máxima eficacia en el cumplimiento de sus funciones y en la prestación de sus servicios, de acuerdo con el principio de participación de las personas usuarias y con pleno respeto por las competencias que corresponden a otras administraciones, desarrollando una gobernanza colaborativa y la máxima coordinación institucional, desde el esfuerzo por desarrollar cauces de coordinación y colaboración entre todas las administraciones.

Testuinguru horren barruan, berebiziko garrantzia hartzen du Euskadiko uraren gaineko politikak, ur-segurtasuna, ur-masen egoera ekologiko ona eta uholdeen aurreko erresilientzia hobetu behar baitira, pertsonak eta ondasunak babesteko gertaera meteorologiko bortitzen aurrean, zeinak, gainera, bortitzago bilakatu daitezkeen klima-aldaketaren ondorioz. Eta hori guztia sistemak eta datuak digitalizatzeko trena berritzaileak garatuz egin behar da, zorroztasun eta eraginkortasun handiagoz jardun eta administrazio hurbila, azkarra eta gardena ahal izateko.

Dentro de este contexto adquiere especial relevancia la política del agua en Euskadi, en tanto que se ha de satisfacer la seguridad hídrica, el buen estado ecológico de las masas de agua, la mejora de la resiliencia ante inundaciones para la defensa de las personas y bienes frente a los eventos meteorológicos adversos que pueden, además, ser radicalizados como efecto del cambio climático, y todo ello con el desarrollo de herramientas innovadoras de digitalización de los sistemas y de los datos que permitan una actuación más rigurosa y eficiente, y una administración cercana, ágil y transparente.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren konpromisoa da, hain zuzen, uraren eskuragarritasuna eta kalitatea bermatzea, baita haren kudeaketa jasangarria ere, eta, gainera, gure ibaietako uraren % 70 kalitate onekoa edo oso onekoa izatea lortzea 2025ean. Horretarako, hau guztia egin behar da:

1.- Edateko uraren sareen kudeaketa eraginkorra optimizatu

2.- Ureztatze-sistemetan teknologia berriak aplikatu, uraren kontsumoa optimizatzeko

3.- Hondakin-uren saneamendu- eta arazketa-zerbitzuak eta -instalazioak hobetu.

4.- Hondakin-urek sortutako kutsaduraren kontrola, erregulazioa eta ikuskapena indartu, eta hondakin-uren tratamendua, balorizazioa eta berrerabilpena bultzatu.

5.- Ur-baliabideen erabilera eraginkorra eta uraren ekonomia zirkularra sustatu.

6.- Uraren hiri-zikloaren kudeaketa integrala hobetu.

7.- Hornidurarako, saneamendurako eta uholdeei aurre egiteko beharrezko azpiegiturak garatu.

8.- Teknologia berrien garapena sustatu.

Aipatutako guztiak oso kontuan izan behar du klima-aldaketak egoera berri baten eraginpean jartzen gaituela.

Ura funtsezko ondasuna da herritarrentzat, baita edozein sektoretako jarduera ekonomikorako ere, eta, horrenbestez, ur-hornidura segurua, aurreikusteko modukoa, eta, batez ere, kalitatezkoa izango dela bermatu behar da.

Klima-aldaketaren testuinguruan, bereziko garrantzitsu bilakatzen da uraren ziklo integralaren ekonomia zirkularra, hargunetik isurketara, baita berrerabilpena ere, ura biltegiratu, edangarri bihurtu, banatu, araztu eta berrerabili ahal izateko azpiegitura-multzo baten bidez lortzen dena. Kudeaketa-eredu integral baterantz eboluzionatu behar da, eta, zentzu horretan, Sailak, URAren bitartez, lan egingo du beharrezko adostasun instituzionala lortzeko hiri-erabilerako uraren ziklo integralaren esparru-erregelamenduaren formulatze aldera.

Klima-aldaketak uholde-arriskuan duen eragina ere garrantzitsua da, batez ere uholde-hazkundean, puntako ur-emariei dagokienez errepikatze-denboretako. Horrek lurraldeko erabileren antolamenduari dagokionez prebentzio-lana egitera behartzen gaitu, baita politika hidraulikoaren eta hirigintzaren arteko hitzarmen eta koordinaziora.

Ura funtsezko baliabide naturala da, eta haren ekosistemak giza garapen jasangarrirako ez ezik, biziraupenerako ere ezinbestekoak dira. Abiapuntu hori aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak bere proposamen estrategikoa zehaztu du Uraren Euskal Agentziak 2020-2024 legegintzaldi honetan jarduteko, aurrekontu honen bost helburutan.

El compromiso del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, es el de garantizar la disponibilidad y calidad del agua y su gestión sostenible, además de lograr que el 70% del agua de nuestros ríos sea de calidad buena o muy buena en 2025, mediante:

1.- La optimización de la gestión eficiente de las redes de agua potable.

2.- Aplicando nuevas tecnologías en los sistemas de regadíos para la optimización del consumo del agua.

3.- Mejorando los servicios e instalaciones de saneamiento y depuración de aguas residuales.

4.- Reforzando el control, regulación e inspección de la contaminación producida por aguas residuales e impulsando el tratamiento, la valorización y la reutilización de las aguas residuales.

5.- Fomentando el uso eficiente de los recursos hídricos y la economía circular del agua.

6.- Mejorando la gestión integral del ciclo urbano del agua.

7.-Desarrollando las infraestructuras necesarias de abastecimiento, saneamiento y defensa frente a inundaciones.

8.- Impulsando el desarrollo de nuevas tecnologías.

Todo ello debe tener muy presente la nueva perspectiva a la que nos somete el cambio climático.

El agua es un bien esencial tanto para la ciudadanía, como para la actividad económica de cualquier sector y, por tanto, es necesario garantizar un suministro de agua seguro, previsible y sobre todo de calidad.

En el contexto de cambio climático cobra especial importancia la economía circular del ciclo integral del agua, desde la captación al vertido y la reutilización, mediante un conjunto de infraestructuras que permitan almacenar, potabilizar, distribuir, depurar y reutilizar el agua. Es preciso evolucionar hacia un modelo de gestión integral y en este sentido desde el Departamento y a través de URA, se trabajará para alcanzar el necesario consenso institucional en la formulación del Reglamento Marco del Ciclo Integral del Agua de Uso Urbano.

No es menos importante el efecto del cambio climático en la inundabilidad, sobre todo en el incremento de la torrencialidad, de los caudales punta para los diferentes periodos de retorno. Esto nos obliga, también, a la prevención en la ordenación de usos en el territorio, y a una concertación y coordinación entre la política hidráulica y el urbanismo.

Bajo el principio de que el agua, es el recurso natural esencial y sus ecosistemas, no son sólo imprescindibles para el desarrollo humano sostenible, sino para la propia supervivencia, el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco define su propuesta estratégica para la actuación de Uraren Euskal Agentzia/Agencia Vasca del Agua para esta legislatura 2020-2024, en cinco objetivos sobre los que está formulado este Presupuesto.

Uraren Euskal Agentziaren helburu instrumental nagusiak honela zerrendatu daitezke:

Los principales objetivos instrumentales de Uraren Euskal Agentzia-Agencia Vasca del Agua se pueden enumerar como sigue:

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
SANEAMENDU ETA ARAZKETA-ZERBITZUEN BERMEA		**GARANTÍA DE LOS SERVICIOS DE SANEAMIENTO Y DEPURACIÓN**
1. Uraren zerbitzuak kudeatzen dituzten enteekin ur-hornidura, saneamendu eta arazketa-lanetan batera aritzea.		1. Colaboraciones con entes gestores de los servicios del agua en la realización de obras de abastecimiento, saneamiento y depuración.
Inversión realizada. Millones de euros.	**27,70**	Egindako inbertsioa. Milioi euro.
EKOSISTEMA URTARRAK ETA BIODIBERTSITATEA LEHENERATZEA ETA ZAINTZEA		**RESTAURACIÓN Y PROTECCIÓN DE ECOSISTEMAS ACUÁTICOS Y BIODIVERSIDAD**
1. Jabari Publiko Hidraulikoari eta Itsas-Lehorrekoari dagozkien administrazio-espedienteak izapidetzea		1. Tramitación de expedientes administrativos relativos al Dominio Público Hidráulico y Marítimo-Terrestre.
Epe barruan izapidetutako espedienteen gehikuntza. Ehunekoa.	**15**	Incremento de expedientes tramitados en plazo. Porcentaje.
Izapidetutako espedienteak. Gutxi gorabeherako zenbakia.	**3.200**	Expedientes tramitados. Número estimativo.
2. Uren inguruko planei, programei eta proiektuei buruzko eta bestelako politika sektorialei (hirigintza, garraioa, etab.) buruzko txostenak egitea.		2. Emisión de informes sobre planes, programas y proyectos en materia de aguas y de otras políticas sectoriales (urbanismo, transporte, etc.).
Epe barruan igorritako txostenen gehitzea. Ehunekoa.	**2**	Incremento de informes remitidos en plazo. Porcentaje.
Egindako txostenak. Gutxi gorabeherako zenbakia.	**432**	Informes emitidos. Número estimativo.
3. Jabari Publiko Hidraulikoa eta Itsas-Lehorrekoa lehengoratze lanei dagokien kanona.		3. Emisión de los cánones correspondientes en labores de recuperación del Dominio Público Hidráulico y Marítimo-Terrestre.
Kanonek eragindako diru-sarrerak. Milioi euro.	**7**	Ingresos por cánones. Millones de euros.
Diru-sarrera kanonak. Jasotako kanonen ehunekoa, likidatuekin alderatuta.	**95**	Ingresos cánones. Porcentaje ingresado respecto a los devengados.
4. Ibilguak mantendu eta lehengoratzeko lanak		4. Trabajos de restauración y conservación cauces
Mantenimendu lanetan egindako inbertsioa. Milioi euro.	**5,90**	Inversión realizada en actuaciones de restauración. Millones de euros.
Zein erribera-luzeratan jarduten den. Kilometroak.	**230**	Longitud de ribera sobre la que se actúa. Kilómetros.
5. Jabari Publiko Hidraulikoaren eta Itsas-Lehorrekoaren narriadura ekidetze aldera, zehapen-prozedurak izapidetzea.		5. Tramitación de procedimientos sancionadores para evitar el deterioro del Dominio Público Hidráulico y Marítimo-Terrestre.
Hasitako zehapen-espedienteen gehitzea. Ehunekoa.	**13**	Incremento de expedientes sancionadores iniciados. Porcentaje.
SEGURTASUN HIDRIKOA		**SEGURIDAD HÍDRICA**

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1. Garapen bidean diren herrialdeetako proiektuentzako laguntza, ura eta saneamendua izateko eskubidea erraztuko duten ekintzen barruan.		1. Apoyo a proyectos en países en vías de desarrollo para actuaciones que faciliten el disfrute del Derecho al agua y al saneamiento.
Egindako inbertsioa. Milioi euro	**0,30**	Inversión realizada. Millones de euros.
2. Uraren zerbitzuak kudeatzen dituzten enteekin ur-hornidura lanetan batera aritzea.		2. Colaboraciones con entes gestores de los servicios del agua en la realización de obras de abastecimiento.
Egindako inbertsioa. Milioi euro.	**3,50**	Inversión realizada. Millones de euros.
UHOLDEEN AURREAN ERRESILIENTZIA HOBETZEA		**MEJORA DE LA RESILIENCIA ANTE INUNDACIONES**
1. Uholde-arriskua kudeatzeko 2007/60 Zuzentaraua berrikusteko prozesua.		1. Proceso de revisión de la Directiva 2007/60 de gestión del riesgo por inundación.
Epeak betetzea. BAI/EZ		Cumplimiento de plazos. SI/NO
Egindako inbertsioa. Milioi euro.	**0,20**	Inversión realizada. Millones de euros.
2. Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren tratamendua.		2. Tratamiento del Plan de Gestión de Riesgo de Inundación.
Epeak betetzea. BAI/EZ		Cumplimiento de plazos. SI/NO
3. Neurrien programan jasota dauden uraldien aurrean babesteko jarduketa estrukturalak.		3. Programa de medidas en actuaciones estructurales de protección ante avenidas.
Egindako inbertsioa. Milaka euro	**24,10**	Inversión realizada. Millones de euros.
4. Uholde arriskuaren aurrean Erabakitzen Laguntzeko Sistemaren mantenimendua eta garapena.		4. Mantenimiento y desarrollo del Sistema de Ayuda a la decisión ante el riesgo de inundación.
Egindako inbertsioa. Milioi euro.	**0,50**	Inversión realizada. Millones de euros.
DIGITALIZAZIOA ETA PROIEKTU BERRITZAILEAK		**DIGITALIZACIÓN Y PROYECTOS INNOVADORES**
1. Ur-masen egoeraren jarraipena.		1. Seguimiento del estado de las masas de agua
Egingako inbertsioa. Milioi euro.	**1,90**	Inversión realizada. Millones de euros.
EAEko ur-masen egoeraren jarraipenerako kontrol-puntuen kopurua.	**420**	Puntos de control para el seguimiento del estado de las masas de agua de la CAPV. Número de puntos.
2. EAEko demarkazio hidrografikoetan plan hidrologikoak ezartzea.		2. Implantación de los planes hidrológicos de las demarcaciones hidrográficas de la CAPV.
Epeak betetzea. BAI/EZ.		Cumplimiento de plazos. SI/NO
3. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Barneko Arroen eremuko Plan Hidrologikoa berraztertzeko prozesua.		3. Proceso de revisión del Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental. Ámbito de las Cuencas Internas.
Epeak betetzea. BAI/EZ		Cumplimiento de plazos. SI/NO.
4. Digitalizazioa espedienteak izapidetzean eta ur-masen gaineko inpaktuen kontrola.		4. Digitalización en la tramitación de expedientes y control de los impactos sobre las masas de agua.
Inbertsioa. Milioi euro.	**1**	Inversión. Millones de euros.

PROGRAMA

5151 PORTUAK

ARDURADUNA

EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA
PORTU ETA ITSAS GAIETAKO ZUZENDARIA

PROGRAMA

5151 PUERTOS

RESPONSABLE

DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
DIRECTOR DE PUERTOS Y ASUNTOS MARÍTIMOS

MEMORIA

Autonomia-erkidegoaren eskumeneko portuetarako programatutako jarduketen helburua da portuetako eragileek sustatzen dituzten jarduera sozioekonomikoak bultzatu eta koordinatzea arrantzaren, merkataritzaren, kirol-nautikaren eta turismoaren sektoreetan, alde batera utzi gabe defizitaren helburuak Gobernu honetako sail guztiei eskatzen dizkien aurrekontu-doikuntzak.

Horretarako, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren zeregin nagusien artean dago EAEri atxikitako portuazpiegituren behar berriak planifikatzea, gauzatzea, zabaltzea, kontserbatzea eta egokitzea, bai eta portuetan ontziei eta portuko jarduera-sektoreetako erabiltzaileei zuzendutako zerbitzuak ematea ere (arrantza, nautika, aisialdia eta merkataritza jarduerasektoreetakoei, alegia). Zerbitzu horietako batzuk orokorrak eta mota guztietako ontzientzat komunak dira: besteak beste, itsasoko babesa, itsas eta lehorreko sarbidea, atrakatzea, ainguratzea, konponketa- eta hornikuntza-eremuak, bai eta portuazalerak, kaiak eta abar egokitzea ere. Beste batzuk, ordea, berariazkoak dira, hala nola arrantza-flotarako direnak (izotz-fabrika, arrain-lonjak, sareetarako eraikinak, lanabesetarako biltegiak, etab.), kirol-jardueretarako direnak (kapitaintza, pantalanak, ainguratzeak), edo merkataritza-jardueretarako direnak (biltegiak, aterpeak, zabalguneak, etab.). Azken batean, behar besteko edukiera eta zerbitzu- eta babes-baldintza egokiak dituzten portu seguruak mantendu nahi dira, betiere instalazio horiek erabiliko dituzten pertsonengan pentsatuta. Horretarako, ezinbestekoa da programa honetan genero-ikuspegia txertatzea, herritar guztiei erantzun egokia emateko, irisgarritasun-baldintzak hobetzea, eta ingurumena behar bezala babesteko eta energiaren ikuspegitik eraginkorrak diren jardunbideetan dugun erantzukizuna gogoratzea.

Las actuaciones programadas para los Puertos de competencia autonómica pretenden impulsar y coordinar las diferentes actividades socioeconómicas promovidas por los agentes portuarios, en el sector de la pesca, el comercio, la náutica deportiva y el turismo, sin dejar de lado los ajustes presupuestarios que el objetivo del déficit exige a todos los departamentos de este Gobierno.

Para ello, la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos tiene entre sus cometidos principales la planificación, ejecución, ampliación, conservación y adaptación a las nuevas necesidades de las infraestructuras portuarias adscritas a la CAPV, así como el de prestar en puerto los servicios dirigidos a las embarcaciones, y a los usuarios y usuarias de los diversos sectores de actividad del puerto: pesquera, náutica-recreativa y comercial. Dichos servicios son tanto de carácter general: abrigo de la mar, acceso marítimo y terrestre, atraque, fondeo, áreas de reparación y aprovisionamiento, habilitación de superficies portuarias, etc., comunes a todo tipo de flota, como de carácter específico, tales como los destinados a la flota pesquera (fábrica de hielo, lonjas de pescado, edificios para redes, almacenes para pertrechos, etc.), a la deportiva (capitanía, pantalanes, amarres), o a la comercial (almacenes, tinglados, explanadas, etc.). En definitiva, se trata de mantener unos puertos seguros, con capacidad suficiente y con las condiciones de servicio y abrigo adecuadas, pensando siempre en las personas que harán uso de estas instalaciones. Es indispensable, a este fin, incorporar la perspectiva de género en este programa para poder dar una respuesta adecuada a toda la población, así como mejorar las condiciones de accesibilidad, y recordar nuestra responsabilidad en la adecuada protección del medio ambiente y en las prácticas eficientes desde el punto de vista energético.

Garraioa da planetako emisio kutsatzaile gehienen eragilea, eta, beraz, klima-aldaketaren aurkako estrategian aktiboki parte hartzeko betebeharra dugu, dagokigun heinean, itsas garraioari azpiegitura egokiak emanez, jasangarritasunari eta eraginkortasun energetikoari lehentasun handiena emateko konpromiso irmoari eutsiz.

Siendo el transporte el sector responsable de una gran parte de las emisiones contaminantes del planeta, tenemos la obligación de tomar parte activa en la estrategia contra el cambio climático en la parte que corresponde, dotando al transporte marítimo de las infraestructuras adecuadas, manteniendo el firme compromiso de dar máxima prioridad a la sostenibilidad y a la eficiencia energética.

Zuzendaritza honentzako ezinbesteko alderdi bat da portuetako babes-azpiegiturak sendotzea, azken urteotako ekaitzetako olatuen altuera eta inpaktuaren energia izugarritik babesteko. Horregatik, hasitako bideari irmo heldu behar zaio, gutxieneko indargarriak jartzeko nagusiki 2014. eta 2016. urteetan pairatu genituen egoeren antzekoak saihets ditzaten. Urte horietan kalte larriak pairatu zituzten kanpoalderen dauden portu-azpiegiturek eta instalazioek, (Bermeon, Ondarroan, Orion eta Zumaian).

Un aspecto primordial para esta Dirección es la necesidad de refuerzo de nuestras infraestructuras de abrigo portuario frente a la extraordinaria energía de impacto y altura de oleaje de los temporales que vienen observándose en los últimos años. Por ello, se continua en la tarea emprendida de una manera decidida, para contar con el refuerzo mínimo necesario para evitar situaciones como las sufridas principalmente en los años 2014 y 2016, que afectaron gravemente a las infraestructuras portuarias más expuestas (Bermeo, Ondarroa, Orio, Zumaia) y sus instalaciones.

Ildo horretan, aurreikusitako plangintza bete da, eta 2023ko ekitaldian Ondarroako portuko babes-dikea indartzeko obrak hasi dira. Portu hori erreferentziazko arrantza-portua da Bizkaian eta Kantauri isurialdean, eta 2014tik hasitako jardueketen ondoren EAEn indartzeko geratzen zen azken dikea da. Indartze-lan horien bidez, olatuek dikea haustea edo babes-dikeari atxikitako kaiaren gainean dauden azpiegiturak kaltetzea saihestu nahi da. Obra horiek hamalau hilabeteko epea dute; beraz, 2024ko ekitaldian zehar ere luzatuko dira; izan ere, azken hiruhilekoan amaitzea aurreikusten da.

En este sentido, se ha cumplido con la planificación prevista y en el ejercicio 2023 se han iniciado las obras de refuerzo del dique de abrigo del puerto de Ondarroa, puerto pesquero referente tanto en Bizkaia, como en la vertiente cantábrica, siendo el último de los diques que restaba por reforzar en la CAPV tras las actuaciones iniciadas desde 2014. Con estas obras de refuerzo se pretende evitar que el oleaje provoque roturas del dique o que se puedan dañar las infraestructuras situadas sobre el muelle adosado al dique de abrigo. Estas obras cuentan con un plazo de catorce meses; por lo que, se prolongarán también a lo largo del ejercicio 2024, estando su finalización prevista para su último trimestre.

Bestalde, azpimarratzekoa da Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren gaur egungo obra nagusia. Izan ere, 2022ko bigarren seihilekoan obrak esleitu eta hasi eta 2023an jarraitu ondoren, 2024ko ekitaldirako helburua da Mutrikuko portuko babes-dikearen azken 100 metroak amaitzeko obra egiten jarraitzea. Obra horrekin amaituko dira itsas sarbidea hobetzeko eta asaldura-baldintza egokiak lortzeko jarduketak, Mutrikuko portu osoari beharrezko babesa emateko.

Por otro lado, cabe destacar la que está siendo la principal obra de la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos en la actualidad. Y es que, tras la adjudicación e inicio de las obras durante el segundo semestre del año 2022 y su continuación durante 2023, es objetivo para el ejercicio 2024 continuar con la ejecución de la obra de finalización de los últimos 100 metros del dique de abrigo del puerto de Mutriku. Con esta obra se culminarán las actuaciones para la mejora del acceso marítimo y para la obtención de las adecuadas condiciones de agitación, permitiendo dotar del abrigo requerido a la totalidad del puerto de Mutriku.

Bi jarduketa horiek burututa, Zuzendaritza honek EAEko portuetako babes-dikeak epe laburrean sendotzeko eta egokitzeko programatutako jarduketa nagusiak amaituko lirateke.

Con la culminación de estas dos actuaciones, finalizarían las principales actuaciones programadas por esta Dirección en materia de refuerzo y adaptación de los diques de abrigo de los puertos de la CAPV en el corto plazo.

Horrez gain, bi jarduketa horiei dagokienez, obra zuzendaritza Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren zerbitzu teknikoen bidez egiten ari den arren garrantzitsua da adieraztea bi obretan obra zuzendaritzak laguntza teknikoa duela, eta horrek aukera ematen duela lenen jarraipena egiteko, ikuskatzeko eta gainbegiratzeko etengabe eta iraunkorki, hori guztia funtsezko alderdia baita eraikuntza-lan horien garrantzia eta konplexutasun teknikoa direla eta. Mutrikuren kasuan, gainera, obraren ezaugarriak kontuan hartuta, lanen ingurumen-zuzendaritza bat ere badago, proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpenean ezarritako baldintzak betetzen direla zorrotz zaintzeko.

Además, es importante señalar respecto a estas dos actuaciones que, a pesar de que la Dirección de Obra está siendo realizada por medio de los servicios técnicos de la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos, ambas obras están requiriendo de una asistencia técnica a la dirección de obra que permite realizar un seguimiento, inspección y supervisión permanente y constante de los trabajos, aspecto fundamental dada la magnitud y complejidad técnica de los mismos. En el caso de Mutriku, además, dadas las características de la obra, también se dispone de una dirección ambiental de los trabajos para una estricta vigilancia del cumplimiento de los requisitos establecidos por la Declaración de Impacto Ambiental del proyecto.

Halaber, 2023ko ekitaldian Lekeitioko portuko iparraldeko dikearen muturra konpontzeko proiektua idatzi da. Jarduketa horren bidez, aipatutako azpiegituraren muturraren zimenduaren oina goratu nahi da, portu horretan olatuen eta korronteen eragina jasateko arrisku handiena duen elementuetako bat baita, gaur egun gabezia larriak dituena, eta, ondorioz, haren erresistentzia-gaitasuna arriskuan dago. Proiektu honen lizitazioa eta gauzatzea 2024ko ekitaldirako aurreikusi da.

Conviene añadir en este capítulo que, durante el ejercicio 2023 se ha redactado el proyecto de reparación del morro del dique norte del puerto de Lekeitio, actuación que pretende recalzar el pie de la cimentación del morro de la citada infraestructura, siendo uno de los elementos más expuesto a la acción del oleaje y las corrientes en este puerto, y que presenta en la actualidad serias deficiencias que ponen en riesgo su capacidad resistente. La licitación y la ejecución de este proyecto se ha previsto para el ejercicio 2024.

Gure atrakatze-azpiegiturak hobetzeari ere erreparatzen zaio gure programan. Ildo horretan, aipatzekoa da 2021ean EAEko portuetako kaiak ikuskatzeko eta aztertzeko lanak egin zirela. Azterlan horri esker, gure kaiek gaur egun duten kontserbazio egoera ezagutu ahal izan da, eta, horrela, epe laburrera edo ertainera jarduteko ditugun beharrak lehenetsi dira. Azterlan horretatik abiatuta, 2022ko ekitaldian esleitu eta idatzi zen Donostiako portuan La Jaranako kaia konpontzeko proiektua. Obra hori 2023ko ekitaldian hasi da, eta 2024ko lehen hiruhilekoan amaitzea aurreikusi da. Ildo beretik, 2021ean hasitako lanari jarraipena emateko, 2024ko ekitaldian kaiak konpondu eta sendotzeko hainbat proiektu idazten hasi nahi da, hala nola, Gipuzkoak Lurralde Historikoan, Getariako portuko Kofradia Zaharreko kaia sendotzeko proiektua eta Mutrikuko portuko barruko dikeen muturrak sendotzeko proiektua; eta Bizkaiko Lurralde Historikoan, Ondarroako portuan Egidazu kaiko zorua berrezartzeko eta zerbitzu-sareak egokitzeko proiektua.

También son objeto de atención en nuestro Programa la mejora de nuestras infraestructuras de atraque. En esta línea, cabe señalar que en el ejercicio 2021 se llevaron a cabo los trabajos de inspección y análisis de los muelles de los puertos de la CAPV, estudio que ha permitido conocer el estado de conservación que presentan nuestros muelles en la actualidad y priorizar así nuestras necesidades de actuación a corto-medio plazo. A partir de este estudio, en el ejercicio 2022 se adjudicó y redactó el proyecto de reparación del muelle de la Jarana en el puerto de Donostia/San Sebastián cuya obra asociada se ha iniciado en el ejercicio 2023, estando prevista su finalización en el primer trimestre de 2024. En esta misma línea, como continuación del trabajo iniciado en 2021, se pretende poner en marcha la redacción de diversos proyectos de reparación y refuerzo de muelles durante el ejercicio 2024, como pudiera ser el proyecto de refuerzo del muelle de la Cofradía Vieja del puerto de Getaria o el proyecto de refuerzo de los morros de los diques interiores del puerto de Mutriku en el T.H. de Gipuzkoa, y el proyecto de repavimentación y adecuación de las redes de servicios del muelle de Egidazu en el puerto de Ondarroa en el T.H. de Bizkaia.

Atrakatzeko azpiegiturak indartzeko eta birmoldatzeko obrak azaltzen jarraitzeko, 2024ko ekitaldian Ondarroako portuan Artibai itsasadarra bideratzeko kaia azpi-berritzeko obrak lizitatu eta egiten hasi nahi da, kaian kaltetutako eremuak egonkortzen eta birgaitzen direla bermatzeko, behin portu horretako arrain-lonja berria eraikitzeko lanak 2022an amaitu ondoren.

Continuando con lo relativo a obras de refuerzo y remodelación de infraestructuras de atraque, en el ejercicio 2024 se pretende licitar y comenzar la ejecución de las obras de recalce del muelle de encauzamiento de la ría Artibai en el puerto de Ondarroa, para garantizar la estabilización y rehabilitación de las zonas dañadas del muelle, una vez finalizada la ejecución de las obras de construcción de la nueva lonja de pescado de dicho puerto en 2022.

Gainera, 2024ko azken hiruhilekorako lizitatzea eta gauzatzea aurreikusita dagoen inbertsio bat Orioko portuko ezkerraldean, lehorreratzeko orgen ondoko harri-lubetazko kaia egokitzea da. Proiektua 2023ko ekitaldian idatzi da. Egitasmo honekin kai berri bat eraiki nahi da, behar den sakonerarekin eta ekipamenduarekin, atrakaleku berri bat sortzeko, eta, horrez gain, eremu zabal bat egokitu nahi da bere azaleran, industria eta portu-zerbitzuei lotutako aktibitateak garatzeko.

Además, una inversión cuya licitación y ejecución está prevista para el último trimestre de 2024 es la adecuación del muelle de escollera de la margen izquierda, junto a los carros varaderos, del puerto de Orio, actuación cuyo proyecto se ha redactado en el ejercicio 2023 y con la cual se pretende la construcción de un muelle que permita la generación de un nuevo frente de atraque con el calado y el equipamiento necesario, además de habilitar sobre su superficie una amplia zona destinada a albergar actividades ligadas a servicios industriales-portuarios.

Bestalde, administrazioen arteko lankidetza-akordioen esparruan, programa honek partida bat aurreikusten du Debako itsasadarraren ezkerraldean dartsena bat garatzeko, Debako Estuarioa Antolatzeko Planaren barruan. Era berean, Eako portuan eskuineko hegala egonkortzeko partida bat aurreikusten du.

Por otro lado, en el marco de los acuerdos de colaboración entre Administraciones, este Programa contempla, encajado en el Plan de ordenación del Estuario de Deba, una partida para el desarrollo de una dársena en la margen izquierda de la ría de Deba. Asimismo, contempla una partida para la estabilización de la ladera derecha en el puerto de Ea.

Bestalde, aipatu behar da 2024an indarrean jarraituko dutela bi lurralde historikoetako portuetako instalazio elektrikoak, argiteria eta itsas balizak mantentzeko eta hobetzeko kontratuek. Gainera, 2024ko azken hilabetean, kontratu horiek beste bi urtez luzatzeko aukera egongo da bi lurralde historikoetan. Horretarako, dagokion aurrekontu-estaldura emango zaio programari.

En otro orden de cosas, cabe señalar que en 2024 seguirán plenamente vigentes los contratos relativos al mantenimiento y mejora de las instalaciones eléctricas, de alumbrado y balizamiento marítimo de los puertos de ambos Territorios Históricos. Además, durante el último mes de 2024, existirá la posibilidad de prorrogar estos contratos en ambos Territorios Históricos por otros dos años adicionales, para lo cual se dota al Programa de la correspondiente cobertura presupuestaria.

Bi lurralde historikoei aplika dakizkiekeen mantentzekontratu orokorrak azaltzen jarraitzeko, 2024an indarrean jarraituko dute 40.000,00 eurotik beherako aurrekontua duten obra zibilak eta itsas obrak egiteko izapidetutako esparru-akordioek. Kontratu horiei esker, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak EAEko portuak konpontzeko, eraberritzeko, hobetzeko edo egokitzeko obra txiki ugari egin ahal izango ditu. Obra horiek funtsezkoak dira portuen eguneroko jarduna hobetzeko, haien tramitazioa bizkorra eta egikaritzea malgua baita. Gainera, 2024ko erdialdean, bi lurralde historikoetan kontratu horiek beste bi urtez luzatzeko aukera egongo da, eta, horretarako, programa honetan dagokion aurrekontu-estaldura aurreikusten da.

Siguiendo con los contratos generales de mantenimiento aplicables a ambos Territorios Históricos, durante 2024 seguirán plenamente vigentes los Acuerdos Marco tramitados para la ejecución de obras civiles y obras marítimas de presupuesto inferior a 40.000,00€. Estos contratos están permitiendo a la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos ejecutar un importante número de obras menores de reparación, reforma, mejora o adecuación en los puertos de la CAPV, fundamentales para mejorar la operatividad en el día a día de los puertos, por la agilidad de tramitación y flexibilidad de ejecución que ofrecen. Además, a mediados de 2024, existirá la posibilidad de prorrogar estos contratos en ambos Territorios Históricos por otros dos años adicionales, para lo cual se prevé la correspondiente cobertura presupuestaria en el presente Programa.

Bestalde, portuetan sakonerak mantendu behar direnez, dragatze-lanetarako zuzkidura ekonomikoa izan behar dugu, indarrean dagoen dragatze-planaren irizpideei jarraituz.

Por otra parte, el necesario mantenimiento de calados en los puertos nos obliga a contar con una dotación económica para los dragados de los mismos siguiendo los criterios derivados del Plan de Dragados vigente.

2023an jarduketa oso garrantzitsu batzuk egin dira: Mundakako portuko barruko dartsenak dragatzea, Lekeitioko portura sartzeko kanala eta Mundakako portuko aldi baterako ainguratze-eremua mantentzeko ohiko dragatze-lanak uda aurretik egitea. 2024rako, berriz, Hondarribiko portuko beteranoen dartsena dragatzea aurreikusten da, eremu horretako sakonerabaldintza egokiak bermatzeko eta, horrela, erabiltzaileei segurtasuna bermatzeko.

Tras haberse llevado a cabo una actuación muy relevante en 2023, como fue el dragado de las dársenas interiores del puerto de Mundaka, además de llevar a cabo los dragados habituales de mantenimiento del canal de acceso al puerto de Lekeitio y de la zona de fondeo temporal del puerto de Mundaka previo al periodo estival, para el 2024 se prevé la realización del dragado de la dársena de veteranos del puerto de Hondarribia, con el objetivo de garantizar unas adecuadas condiciones de calado de esta zona, garantizando así la seguridad a sus usuarios y usuarias.

Gainera, lehen aipatutako dragatze-jarduketen zati garrantzitsu gisa, Zuzendaritza honek 2024ko ekitaldian indarrean mantenduko du 2023aren amaieran luzatutako kontratua. Kontratu horren helburua da "Zuzendaritza honek EAEko portuinstalazioetan 2021-2023 aldian egindako dragatzejarduketen jarraipena eta ingurumen-zaintza egitea". Alderdi hori funtsezkoa da arlo horretan, ingurumena eta itsas hondoak babestuko direla bermatzeko.

Además, como parte importante de las actuaciones de dragado anteriormente mencionadas, esta Dirección mantendrá vigente durante el ejercicio 2024 el contrato, prorrogado a finales de 2023, que tiene por objeto el "Seguimiento y vigilancia medioambiental de las actuaciones de dragado llevadas a cabo por esta Dirección en las instalaciones portuarias de la CAV entre el periodo 2021-2023", aspecto fundamental en esta materia para garantizar una protección del medio ambiente y de los fondos marinos.

Eraikuntza-jarduketei dagokienez, adierazi behar da 2023an Ondarroako portuaren estalpearen eraikinaren egitura birgaitzeko eta barrualdeak egokitzeko proiektua idatzi dela. Beraz, 2024ko ekitaldian, eraikinaren egiturazko egonkortasuna bermatu eta barrualdeak egungo portu-beharretara egokitu nahi dituen jarduketa hori esleitu eta gauzatzeko asmoa dago.

En lo relativo a actuaciones de edificación, cabe señalar que durante el año 2023 se ha redactado el proyecto de rehabilitación estructural y adecuación de interiores del edificio del tinglado del puerto de Ondarroa. Así pues, durante este próximo ejercicio 2024, la intención es la de adjudicar y ejecutar esta actuación que pretende garantizar la estabilidad estructural del edificio y adecuar sus interiores a las necesidades portuarias actuales.

Eraikuntza-sektoreari lotutako jarduketak adierazten jarraitzeko, 2024ko ekitaldirako Mutrikuko portuko kofradia zaharraren eraikina birgaitzeko obraren lizitazioa eta hasiera planteatu dira, eraikin horren birgaitze integrala egiteko helburu irmoarekin. Sute batek hondatutakoak konpontzeaz gain, irisgarritasunbaldintzak hobetuko dira, bai eta inguratzailearen eta instalazioen energia-eraginkortasuna ere, Era berean, eraikinari portuko hirigintza-antolamenduarekin bateragarriak diren erabilera-aukerak emango zaizkio.

Continuando con las actuaciones ligadas al sector de la edificación, se plantea para el ejercicio 2024 la licitación y el inicio de la obra de rehabilitación del edificio de la antigua cofradía del puerto de Mutriku, con el firme objetivo de ejecutar una rehabilitación integral de este edificio, dañado por un incendio, mejorando así sus condiciones de accesibilidad, la eficiencia energética de su envolvente y de sus instalaciones y dotando al edificio de unas posibilidades de uso compatibles con la ordenación urbanística portuaria.

Amaitzeko, 2024an lizitatu eta gauzatzeko programatutako beste jarduketa bat aipatu behar da, zehazki, Armintzako portuko erriberako kaiaren berrantolaketa, portuko kofradiaren eraikin berria eraikitzeko proiektuaren bidez, horrela, portuko hirigintza-antolamendua eta inguruko bide-trafikoa

Para finalizar, es preciso hacer mención a otra actuación programada para ser licitada y ejecutada en 2024, más concretamente, la reordenación del muelle de ribera del puerto de Armintza, mediante la ejecución del proyecto que tiene por objeto la construcción del nuevo edificio de la Cofradía del puerto, mejorando así la ordenación urbanística del puerto y el tráfico viario de la zona.

Bestalde, EAEko portuetako argiztapen eta argiteria publikoko instalazioak hobetzeari dagokionez, 2023ko ekitaldian Bermeoko portuko merkataritza-kaietako argiztapen-dorreak ordezteko proiektua idatzi da. Jarduketa hori 2024ko ekitaldian lizitatu eta gauzatu nahi da, eta haren helburua da portu horretako merkataritza-kaietako argiak berritzea (argiak zein euskarriak). Izan ere, portu horretan urteak daramatzate arazoak eta matxurak izaten, eta energiaeraginkortasun txikiko luminariak dituzte, berritu beharrekoak, energia-auditoriak EAEko portuetako argiteria publikoaren arloan ezarritako jarraibideen arabera.

En otro orden de ideas, en materia de mejora de las instalaciones de iluminación y alumbrado público de los puertos de la CAPV, durante el ejercicio 2023 se ha redactado el proyecto de sustitución de las torres de iluminación de los muelles comerciales del puerto de Bermeo, actuación que se pretende licitar y ejecutar durante el ejercicio 2024, y que tiene como objetivo renovar el alumbrado (tanto luminarias, como soportes) en los muelles comerciales de este puerto, que llevan años adoleciendo de problemas y averías, además de disponer de luminarias de baja eficiencia energética que deben ser renovadas, conforme a las directrices marcadas por la auditoria energética en materia de alumbrado público en los puertos de la CAPV.

Bestalde, portu-eremua eta haren instalazioak gaur egun dauden mugikortasun-eskaera eta -errealitate berrietara egokitzeko, Zuzendaritza honek azterlan bat enkargatu du 2023ko ekitaldian, EAEko portu nagusietan ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneen instalazioak izatearen bideragarritasuna identifikatzeko eta aztertzeko. Portu bakoitzeko erabilera potentzialak, puntu horien tipologia eta ezaugarriak eta proiektu batean horiei lotutako beharrezko azpiegitura zehaztu ondoren, Zuzendaritza honen asmoa da 2024ko ekitaldian ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen sistema bat lizitatzea eta ezartzen hastea gure portu nagusietan. Ildo beretik, Zuzendaritza honen helburua da, 2024ko ekitaldirako, EAEko portu nagusietan ontzi elektrikoak kargatzeko guneak instalatzeko bideragarritasun-azterlan bat enkargatzea eta edukitzea, karga-sare hori definitu eta garatzen hasteko aukera emango diguna, emandako zerbitzua hobetze aldera, sistema berritzaile baten bidez, portueremuan emisioak, zaratak eta bibrazioak murrizten lagundutzeko.

Por otro lado, con el objetivo de adaptar el dominio portuario y sus instalaciones a las nuevas realidades y demandas de movilidad existentes en la actualidad, durante el ejercicio 2023 esta Dirección ha encargado un estudio para identificar y analizar la viabilidad de albergar instalaciones de puntos de recarga de vehículos eléctricos en los principales puertos de la CAPV. Una vez definidos los potenciales usos en cada puerto, la tipología y características de dichos puntos, así como la infraestructura necesaria asociada a los mismos en un proyecto, es intención de esta Dirección en este ejercicio 2024 licitar e iniciar la implantación de un sistema de puntos de recarga de vehículos eléctricos en nuestros principales puertos. En esta misma línea, es objetivo de esta Dirección para el ejercicio 2024 encargar y disponer de un estudio de viabilidad de instalar puntos de recarga para embarcaciones eléctricas en los principales puertos de la CAPV que nos permita definir y comenzar a desarrollar dicha red de recarga en aras a mejorar el servicio prestado, mediante un sistema innovador, contribuyendo a la reducción de emisiones, ruidos y vibraciones en el ámbito portuario.

Halaber, 2024ko ekitaldian, Bizkaiko eta Gipuzkoako obren Segurtasun eta Osasuneko Koordinazioaren zerbitzu-kontratuei eutsiko zaie, eta Bizkaiko Lurralde Historikoari dagokion kontratua ekitaldiko hirugarren hiruhilekoan luzatzeko aukera egongo da. Horretarako, programa honetan dagokion aurrekontu-estaldura aurreikusten da.

Por otro lado, se mantendrán en este ejercicio 2024 los contratos para la Coordinación de Seguridad y Salud de las obras tanto en Bizkaia, como en Gipuzkoa, existiendo la posibilidad de formalizar la prórroga del contrato correspondiente al Territorio Histórico de Bizkaia en el tercer trimestre del ejercicio, para lo cual se prevé en este Programa la correspondiente cobertura presupuestaria.

Gainera, Portuko zerbitzuak hobeto emateko, portuko instalazioen kudeaketa hobetzen jarraituko da, hori guztia EAEko portu guztietako lurrazaletik eta urazaletik datozen hondakinak garbitzeko eta biltzeko zerbitzuaren kontratuen bidez, Bizkaian zein Gipuzkoan.

Además, para una mejor prestación de los servicios portuarios, se continuará en la línea de mejora de la gestión de las instalaciones portuarias, todo ello mediante los contratos del servicio de limpieza y recogida de residuos procedentes de la superficie terrestre y de la lámina de agua de todos los puertos de la CAPV, tanto en Bizkaia como en Gipuzkoa.

2022ko hirugarren hiruhilekoan hasi zen Bizkaiko Lurralde Historikoaren ekialdea garbitzeko kontratu berria, Bilboko bulegoaren garbiketa barne hatzen duena. Kontratu hori beste bi urtez luzatu ahal izango da 2024ko ekitaldian, eta horretarako, dagokion aurrekontu-estaldura aurreikusten da programa honetan. Halaber, 2023ko ekitaldian, Bizkaiko Lurralde Historikoko mendebaldeari zegokion garbiketakontratua luzatu zen, eta 2024ko ekitaldi osoan indarrean jarraituko du. Gipuzkoari dagokionez, egungo garbiketa-kontratua 2024ko otsailera arte egon behar zen indarrean, baina enpresa esleipendunak kontratua luzatzeari uko egin dionez, kontratu berri bat lizitatu da, eta kontratu hori indarrean egongo da oraingoa amaitzen den egunetik aurrera (2024ko otsailaren 9a) hurrengo bi ekitaldietan. Horretarako, programa honetan aurrekontu-zuzkidura garrantzitsu bat aurreikusten da, azken urteetan mota horretako kontratuetan izandako ordainsari-kostuen igoerak barne hartuko dituena.

En el tercer trimestre del 2022 dio comienzo el último contrato de limpieza de la zona este del Territorio Histórico de Bizkaia, en el cual se incluye la limpieza de la oficina de Bilbao, contrato que será posible prorrogar en el ejercicio 2024 por otros dos años más, para lo cual se prevé en este Programa la correspondiente cobertura presupuestaria. Asimismo, en el ejercicio 2023 se prorrogó el contrato de limpieza correspondiente a la zona oeste del Territorio Histórico de Bizkaia, el cual seguirá vigente a lo largo de todo el ejercicio de 2024. En lo que respecta a Gipuzkoa, el contrato de limpieza actual iba a estar vigente hasta febrero de 2024, pero dada la renuncia de la empresa adjudicataria a prorrogar el contrato, se ha licitado un nuevo contrato que deberá comenzar a regir desde la fecha en que venza el actual (09 de febrero de 2024) durante los dos ejercicios siguientes, para lo cual se prevé en este Programa una importante dotación presupuestaria que de cabida a los incrementos de los costes retributivos sufridos en este tipo de contratos en los últimos años.

Jende gehien biltzen duten portuetan Zaintza eta Segurtasun Zerbitzuari eutsiko zaio, hala nola Donostian (Gipuzkoa) eta Ondarroan, Lekeition, Mundakan eta Bermeon (Bizkaia). Ildo horretan, adierazi behar da 2022ko azken hiruhilekoan Donostiako portuko segurtasun- eta zaintza-kontratua formalizatu zela, eta, beraz, 2024ko ekitaldian beste bi urtez luzatzeko aukera egongo dela. Horretarako, dagokion aurrekontu-estaldura aurreikusten da programa honetan. Bizkaiko Ondarroa, Lekeitio, Mundaka eta Bermeoko portuen segurtasun- eta zaintza-kontratuari dagokionez, kontratu hori 2024ko ekitaldiko lehen hiruhilekoan amaituko da. Beraz, 2023an kontratu berriaren lizitazioari ekin zaio, eta gaur egungoa amaitzen den egunetik aurrera (2024ko otsailaren 3tik aurrera) indarrean egon beharko du hurrengo bi ekitaldietan. Horretarako, programa honetan aurrekontu-zuzkidura garrantzitsu bat aurreikusten da, azken urteetan mota horretako kontratuetan izandako ordainsari-kostuen igoerak barne hartuko dituena.

En los puertos más concurridos se mantendrá el Servicio de Vigilancia y Seguridad, como son el de Donostia en Gipuzkoa, y los de Ondarroa, Lekeitio, Mundaka y Bermeo en Bizkaia. En este sentido, señalar que durante el último trimestre de 2022 se formalizó el contrato de seguridad y vigilancia del puerto de Donostia, por lo que, durante el ejercicio 2024 cabrá la posibilidad de que sea prorrogado por otros dos años adicionales, para lo cual se prevé en este Programa la correspondiente cobertura presupuestaria. En lo que respecta al contrato de seguridad y vigilancia de los puertos de Ondarroa, Lekeitio, Mundaka y Bermeo en Bizkaia, éste vence durante el primer trimestre del ejercicio 2024, por lo que, durante el 2023 se ha iniciado la licitación del nuevo contrato, que deberá comenzar a regir desde la fecha en que venza el actual (03 de febrero de 2024) durante los dos ejercicios siguientes, para lo cual se prevé en este Programa una importante dotación presupuestaria que de cabida a los incrementos de los costes retributivos sufridos en este tipo de contratos en los últimos años.

Bestalde, hirigintzari dagokionez, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza honek portuko jabari publikoa kudeatzeko eta portuak antolatzeko hirigintza-planak izapidetzeko dituen eskumenen barruan, adierazi behar da Bermeoko Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 3. aldaketa puntualean, Elantxobeko Portua Antolatzeko Plan Berezian eta Getariako Portua Antolatzeko Plan Berezian jarraitzen dela.

Por otro lado, en materia de urbanismo, dentro de las competencias que tiene atribuidas esta Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos en la gestión del dominio público portuario y la tramitación de planes urbanísticos de ordenación portuaria, señalar que se continúa con la 3ª modificación puntual del Plan Especial de Ordenación del puerto de Bermeo, el Plan Especial de Ordenación del Puerto de Elantxobe y el Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria.

Gainera, Zumaiako Portua Antolatzeko Plan Bereziaren 1. aldaketa puntuala idazteko kontratuan jarraitzen da, eta 2024ko ekitaldirako aurreikusita dago hasierako onarpena ematea.

Además, se continua también con el contrato que tiene por objeto la redacción de la 1ª modificación puntual del Plan Especial de Ordenación del puerto de Zumaia, estando prevista su aprobación inicial para el ejercicio 2024.

Beraz, 2024ko ekitaldiari begira, plan horiek egiten eta izapidetzen jarraituko da.

Por lo tanto, de cara al ejercicio 2024, se continuará con la elaboración y tramitación de dichos planes.

b. Gas-instalazio hartzaileak.		b. Instalaciones receptoras de gas.
Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.	**200**	Previsión de instalaciones puestas en servicio declaradas.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**50**	Previsión de inspecciones a realizar.
c.PGL-ontziak banatzeko biltegiak.		c.Almacenamiento de envases de GLP para su distribución.
Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.	**30**	Previsión de instalaciones puestas en servicio declaradas.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**15**	Previsión de inspecciones a realizar.
5. Hozteko instalazioak.		5. Instalaciones frigoríficas.
Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.	**150**	Previsión de instalaciones puestas en servicio declaradas
Aurreikusitako ikuskapenak.	**20**	Previsión de inspecciones a realizar.
6. Jasogailuak.		6. Aparatos elevadores.
a.Igogailuak.		a.Ascensores.
Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.	**2.000**	Previsión de instalaciones puestas en servicio declaradas.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**300**	Previsión de inspecciones a realizar.
b.Dorre-garabiak.		b.Grúas torre.
Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena	**300**	Previsión de instalaciones puestas en servicio declaradas.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**50**	Previsión de inspecciones a realizar.
7. Instalazio termikoak.		7. Instalaciones térmicas.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.	**5.000**	Previsión de instalaciones puestas en servicio declaradas.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**150**	Previsión de inspecciones a realizar
8. Industria-instalazioen segurtasun-auditoretza egitea, baita eragile laguntzaileenak ere (enpresa instalatzaile eta mantentzaile egokituak, gas-kontrolerako erakunde eta abarrenak). Horretarako instalazio-mota hautatuko dira, erregelamendu-eremutako desberdinekoak, hain zuzen ere.		8. Realización de auditorías de seguridad de instalaciones industriales, así como de agentes colaboradores (empresas instaladoras y mantenedoras habilitadas, suministradoras de gas, organismos de control, etc.), seleccionándose para ello instalaciones diferentes correspondientes a distintos campos reglamentarios.
2. INDUSTRIA ADMINISTRAZIOA		**2. ADMINISTRACIÓN INDUSTRIAL**
Metrologia eta produktuen segurtasuna osatzen duten zenbait arlori dagokienez, funtsezko helburua izango da sustatzea kontsumitzaileen bermeak eta eskubideak.		En relación con los distintos campos que conforman la Metrología y la Seguridad en productos, el objetivo básico consistirá en potenciar las garantías y derechos de las personas consumidoras.
Beste helburu oinarrizkoa izango da arlo honetan handitzea segurtasun maila ibilgailuetan, erregai likidoetan, suteen aurka eta makinerian.		Otro objetivo básico, en este área, consistirá en incrementar los niveles de seguridad en vehículos, combustibles líquidos, protección contra incendios y seguridad en máquinas.
Horretarako, 2024ko ekitaldian aurreikusitako jarduerak hauexek izango dira arloen arabera:		Para ello, las previsiones de actuación en el ejercicio 2024, serán las siguientes en función de los distintos campos, así:
1. Suteen aurkako babesa.		1. Protección contra incendios.
Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**1.800**	Previsión de expedientes a tramitar.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**250**	Previsión de inspecciones a realizar.
2. Industria-establezimenduen erregistroa.		2. Registro establecimientos industriales.
Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**700**	Previsión de expedientes a tramitar.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**21**	Previsión de inspecciones a realizar.
3. Industria-jabetza.		3. Propiedad industrial.
Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**10**	Previsión de expedientes a tramitar.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**3**	Previsión de inspecciones a realizar.
4. Metrologia.		4. Metrología.
Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**125**	Previsión de expedientes a tramitar.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**100**	Previsión de inspecciones a realizar
5. Produktuen kontrola.		5. Control productos.
a.Industria produktuen jarraipena.		a.Seguimiento productos industriales.
Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**20**	Previsión de expedientes a tramitar.
b. Produktu energetikoen azterketa eta egiaztapena.		b. Análisis y control de productos energéticos
Ibilgailuentzako petrolio-produktuen aurreikuspena aztertzeke.	**85**	Previsión de productos petrolíferos para vehículos a analizar
6. Makinen segurtasuna.		6. Seguridad máquinas.
Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**5**	Previsión de expedientes a tramitar.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Aurreikusitako ikuskapenak	**5**	Previsión de inspecciones a realizar.
7. Ibilgailuak.		7. Vehículos.
Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**3.000**	Previsión de expedientes a tramitar.
Aurreikusitako espedienteak ikuskapen teknikoarekin.	**185**	Previsión de expedientes con inspección técnica.
8. Erregai likidoak.		8. Combustibles Líquidos.
3. INSTALAZIO ERRADIOAKTIBOAK		**3. INSTALACIONES RADIACTIVAS**
Instalazio erradioaktiboen eta instalazio horietako langile baimenduen prestakuntzaren kontrola; horrelako instalazioen ezaugarriak eta horiei datxekien arriskua direla-eta, segurtasun-mailak mantentzea eta areagotzea.		Control de las instalaciones radiactivas y la cualificación de su personal de operación autorizado; dadas las características de las mismas y su riesgo inherente, mantener e incrementar sus niveles de seguridad.
Horretarako, hauexek dira 2024ko ekitaldirako aurreikusitako jarduerak:		Para ello, las previsiones de actuación para el ejercicio 2024, son las siguientes:
1. Medikuntzako X izpiak.		1. RX Médicas.
Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**255**	Previsión de expedientes a tramitar.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**30**	Previsión de inspecciones a realizar.
2. 2. eta 3. mailako instalazioak.		2. Instalaciones 2ª/3ª.
Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**38**	Previsión de expedientes a tramitar.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**123**	Previsión de inspecciones a realizar.
Aurreikusitako aktak eta txostenak.	**266**	Previsión de actas e informes a realizar.
3. X Izpietako ekipoen Salmenta eta Laguntza Teknikoko enpresak.		3. Empresas de Venta y A.T. de equipos RX.
Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	**1**	Previsión de expedientes a tramitar.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**1**	Previsión de inspecciones a realizar.
4. Ikuskatzaile- eta langile-lizentziak.		4. Licencias de Supervisor/a y Operador/a.
Izapidetu beharreko izapideen aurreikuspena	**300**	Previsión de expedientes a tramitar.
5. Ikuskatzaile- eta langile-ikastaroak homologatzea		5. Homologación de cursos de Supervisor/a y Operador/a.
Egingo diren homologazioen aurreikuspena.	**1**	Previsión de homologaciones a realizar
6. Ikuskatzaile eta operadore prestakuntza ikastaroak.		6. Cursos de formación de Supervisor/a y Operador/a.
Aurreikusitako ikuskapenak.	**4**	Previsión de inspecciones a realizar.
7. Ingurumeneko Zaintza Erradio-logikoko Estazioak		7. Estaciones de Vigilancia Radiológica ambiental.
Urteko erabilgarritasun-ehunekoa.	**%99**	Porcentaje anual de disponibilidad.

PROGRAMA

7214 BERRIKUNTZA ETA LEHIAKORTASUN ESTRATEGIA

PROGRAMA

7214 INNOVACIÓN Y ESTRATEGIA DE COMPETITIVIDAD

ARDURADUNA

EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA
TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA ZUZENDARIA

RESPONSABLE

DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
DIRECTOR DE TECNOLOGÍA E INNOVACIÓN

MEMORIA

BERRIKUNTZA

Urtero berresten da Eusko Jaurlaritzak Euskadiko industria-sarean berrikuntza sustatzeko egiten duen apustua, 2024rako egiten dugun bezala, gure enpresen lehiakortasuna sendotzeko konpromisoaren ildotik, bai eta iraunkortasunean aurrera egiteko eta aurrerapenak hobekuntza sozial eta ekonomiko bihurtzeko konpromisoaren ildotik ere.

Berrikuntza, hau da, ezagutza epe luzera aberastasun bihurtzeko gaitasuna, ezinbesteko erronka bihurtu da euskal enpresentzat eta, batez ere, enpresa txiki eta ertainentzat. Berrikuntza gero eta globalizatuagoa den sistema ekonomiko batean lehiakorrak izateko beharra da gure enpresentzat.

Euskadi bikaintasuneko eskualde poloa da berrikuntzan, Europar Batasuneko goi-berrikuntzako eskualdeen artean kokatzen da, eta geografia-ingurune batean eta berrikuntza ertaineko herrialde batean kokatuta dago. Europako Batzordeak Europako eskualdeen berrikuntza-jarduna aztertzeko erabiltzen duen Regional Innovation Scoreboard 2023 (RIS 2023) adierazlearen emaitzek Euskadiren aurrerapena islatzen dute, berrikuntzan 27-EBko batez bestekoaren (%109,8) gainetik dagoen errendimenduarekin.

Nolanahi ere, RIS 2023ak islatzen duen berrikuntzan dugun jarduera-maila ona finkatzeaz gain, gaindi daitezkeen alderdietan hobetzeko asmoa izan behar dugu, gure posizioan aurrera egiteko eta, bereziki, gure industria-sarearen lehiakortasuna etengabe hobetzeko.

INNOVACIÓN

La apuesta del Gobierno Vasco por impulsar la innovación en el tejido industrial de Euskadi se reafirma cada año, al igual que hacemos para 2024, en línea con nuestro compromiso de consolidar la competitividad de nuestras empresas, así como para avanzar en la sostenibilidad y que los avances se trasformen en mejoras sociales y económicas

La innovación, entendida como la capacidad de transformar el conocimiento en riqueza a largo plazo, se ha convertido en un reto ineludible para el tejido empresarial vasco y principalmente para sus Pymes. La innovación supone para nuestras empresas una necesidad para ser competitivas en un sistema económico cada vez más globalizado.

Euskadi es una región polo de excelencia en innovación, situándose entre el grupo de regiones de la Unión Europea de alta innovación, y estando ubicada en un entorno geográfico y un país de innovación moderada. Los resultados del indicador Regional Innovation Scoreboard 2023 (RIS 2023), que utiliza la Comisión Europea para analizar el desempeño en innovación de las regiones europeas, reflejan el avance de Euskadi, con un rendimiento en innovación superior a la media de la UE-27 (109,8%).

En todo caso, además de consolidar nuestro buen nivel de desempeño en innovación que refleja el RIS 2023, debemos aspirar a mejorar en aquellos aspectos que sean superables, a fin de avanzar en nuestra posición, y, en especial, para posibilitar la mejora continua de la competitividad de nuestro tejido industrial.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana-ZTBP Euskadi 2030 planaren helburu operatiboen artean dago enpresetan I+G eta Berrikuntza jarduerak bultzatzea, bereziki ETEetan, eta ikuspegi sistemiko eta holistiko batetik egitea. Izan ere, berrikuntza, enpresako jarduera puntualetatik harago, prozesu jarraitu eta denboran iraun duen prozesu gisa ulertu behar da. Horrela sendotzen dira berrikuntzak hari ekiten dioten erakundeetan sortzen dituen abantailak eta aukerak, eta, hala, merkatu globalean, etengabe aldatzen ari den egoera batean, posizionatu ahal izatea, modu nabarmenean.

Hori dela eta, enpresa-berrikuntza sustatzeko euskal politikaren helburua ez da soilik Euskadiko ETE berritzaileen kopurua handitzea eta Berrikuntzaren Europako ekosisteman txertatzea, baizik eta bide horiek hasi dituzten enpresak sendotzea ere.

Helburu horiek lortzeko, berrikuntza sustatzeko eta laguntzeko euskal politikak tresna egokiak izan behar ditu. Alde batetik, negozioaren produktu, zerbitzu eta/edo prozesuetan berrikuntza-proiektuak katalizatzeko eta laguntzeko baliabideak izan behar ditugu; eta, bestetik, berrikuntza gaitzera, kontzientziatzera eta hedatzera bideratutako jarduerak abiarazi behar ditugu.

Bestalde, beharrezkoa da berrikuntzaren aldeko konpromisoaren kultura sustatzea gure sisteman eta eredu ekonomikoan esku hartzen duten eragile guztietan; eta, ildo horretatik, aldaketaren eta berrikuntza irekiaren aldeko kultura sustatzen duten enpresa-ehuna eraldatzeko ekimenak babestea.

Eta enpresetan berrikuntza sendotzeko, egungo arau-esparruan ahalbidetzen diren jarduera berritzaileari zerga-pizgarriak aplikatzea ere kontuan hartu behar dugu.

Eta, era berean, euskal I+G+Bk Horizonte Europaren deialdietan parte har dezan bultzatzea.

Bestalde, Euskadi 2030 ZTBPk Eusko Jaurlaritzak planaren indarraldian I+G+Bri lotutako urteko aurrekontua %6 handitzeko konpromisoa hartzen duela ere jasotzen du.

Beraz, egungo egoeran ezinbestekoa da berrikuntzarako laguntza publikoa mantentzea eta indartzea gure erkidegoko industria-jardueretan. Berrikuntza-jarduerei laguntzeak, epe ertain eta luzeko ikuspegitik, behar eta aukera espezifikoei erantzuteko berrikuntza puntualei erantzuteaz gain, enpresen barruan gero eta modu sarriago eta sistematikoagoan, eta anbizio handiagoarekin, berritzeko gaitasunak garatzea ahalbidetuko du.

Horretarako, honako tresna eta ekintza hauek proposatzen dira:

El Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación-PCTI Euskadi 2030, recoge entre sus objetivos operativos el impulsar la actividad de I+D e Innovación en las empresas, especialmente en las Pymes y hacerlo desde un punto de vista sistémico y holístico. Porque la Innovación, más allá de actuaciones puntuales en la empresa, debe ser entendida como un proceso continuado y sostenido en el tiempo. De esta manera se consolidan las ventajas y oportunidades que la Innovación genera en las organizaciones que la acometen, y, así, pueden posicionarse de manera destacada ante un mercado global y en permanente situación de cambio.

Es por ello que la política vasca de promoción de la Innovación empresarial busca no solo el incremento del número de Pymes innovadoras en Euskadi y su inserción en el ecosistema europeo de Innovación, sino también la consolidación de aquellas empresas que ya han iniciado dichas sendas.

Para alcanzar dichos objetivos, la política vasca de promoción y soporte a la innovación precisa disponer de los instrumentos adecuados. Por un lado, debemos disponer de los medios para catalizar y apoyar los proyectos de Innovación en producto, servicio y/o procesos del negocio; y, por otro lado, poner en marcha actividades orientadas a capacitar, concienciar y difundir la Innovación.

Por otra parte, es necesario impulsar la cultura de compromiso por la innovación en todos los y las agentes que intervienen en nuestro sistema y modelo económico; y, en esta línea, apoyar las iniciativas de trasformación en el tejido empresarial que promuevan una cultural favorable al cambio y a la innovación abierta.

Y para consolidar la innovación en las empresas, debemos también considerar la aplicación de los incentivos fiscales a la actividad innovadora que se posibilitan en el actual marco normativo.

Y, asimismo, potenciar la participación de la I+D+i vasca en las convocatorias de Horizonte Europa.

Por otra parte, anotamos que el PCTI Euskadi 2030 recoge también el compromiso del Gobierno Vasco de incrementar un 6% su presupuesto anual vinculado a la I+D+i a lo largo de la vigencia de plan.

Por lo tanto, es imprescindible en la coyuntura actual mantener y potenciar el apoyo público a la Innovación en las actividades industriales de nuestra comunidad. Un apoyo a actividades de innovación que, desde una perspectiva de medio y largo plazo, además de atender a innovaciones de carácter puntual para responder a necesidades y oportunidades específicas, permita desarrollar capacidades dentro de las empresas para innovar cada vez de manera más frecuente y sistemática y con mayor ambición.

Para ello se proponen los siguientes instrumentos y acciones:

Dirulaguntzen programak, alde batetik, berrikuntzaren esparruan hautemandako merkatu-akatsak arintzeko. Programa horiek, halaber, berrikuntzan etengabe diharduten enpresak erakartzen dituzte, eta horietan "berrikuntzaren kudeaketa" sustatzen dute, berrikuntzari modu sistematiko eta errepikagarrian heltzeko. Honako prozesu hauek bultzatuko dira: Berrikuntza irekia, enpresa hornitzaileak eta/edo bezeroak barne hartzen dituztenak; Berrikuntza disruptiboa, inplementazioak enpresan aldaketa esanguratsuak eragiten baditu; eta Berrikuntza, bai produktuan eta zerbitzuan, bai prozesuetan. Puntu honetan, 2024an Innobideak programa berritu izana nabarmendu behar dugu, laguntza-lerro berriak sartu baitira berrikuntza-proiektuen garapena bizkortzeko, aurrerapen teknologikoak dituzten ekimenen berrikuntzako (berrikuntza ingurune errealean) azken faseei lagunduz; horren helburua da Euskadiko berrikuntzen garapena, transferentzia eta merkaturatzea bizkortzea.

Programas subvencionales que permitan, por un lado, mitigar los fallos de mercado detectados en el marco de la innovación. Programas que, asimismo, atraigan a empresas activas de forma continua en innovación, fomentando en ellas la "Gestión de la Innovación" para abordar la innovación de forma sistemática y replicable. Se apoyarán procesos de: Innovación abierta, que incorporen empresas proveedoras y/o clientas; así como de Innovación disruptiva, cuya implementación provoque cambios significativos en la empresa; y de Innovación tanto en producto y servicio como en procesos. En este punto destacamos en 2024 la renovación del programa Innobideak, con introducción de nuevas líneas de apoyo para acelerar el desarrollo de proyectos de innovación, con el apoyo a las últimas fases de innovación (innovación en el entorno real) de iniciativas con avances tecnológicos; y cuyo fin es acelerar el desarrollo, trasferencia y llegada al mercado de las innovaciones en Euskadi.

Hurbileko eragileen sare bati laguntzeko ekintzak, enpresa txikian berrikuntza sustatzeko laguntza-programetarako eskaria jasotzeko. Bereziki enpresa txikiari bereziki zuzendutako Hazinnova programarako, Innobasquek kudeatzen duen Hazinnova Eragileen Sarean sektoreko erakundeekin batera parte hartzen duten hurbileko eragileekin lankidetzan gauzatzen dena.

Acciones de apoyo a una red de agentes de proximidad para la captación de demanda para los programas de ayuda para el impulso de la innovación en la pequeña empresa. En particular para el programa Hazinnova dirigido especialmente a la pequeña empresa, y que se ejecuta en colaboración con agentes de proximidad que participan junto a entidades sectoriales en la Red de Agentes Hazinnova que gestiona Innobasque.

Berrikuntzaren Erosketa Publikoa (BEP) sustatzeko plan bat, sektore publikotik berrikuntza eta enpresen lehiakortasuna sustatzeko tresna gisa, tresna tradizionalen osagarri (adibidez, diru-laguntzak eta zerga-pizgarriak). Plan horren helburua da BEPren erabilera sendotzea, gobernuaren kontratazio publikoaren ohiko tresna gisa, eskaintzan zein eskarian duen eragina maximizatuz.

Un plan de impulso de la Compra Pública de Innovación (CPI) como herramienta para fomentar la innovación y la competitividad empresarial desde el sector público, complementaria a los instrumentos tradicionales (como las subvenciones y los incentivos fiscales), que tiene por objetivo consolidar el uso de la CPI como una herramienta ordinaria en la contratación pública del gobierno maximizando el impacto, tanto en la oferta como en la demanda.

Berrikuntzaren kudeaketa sustatzeko ekintzak, kudeaketa aurreratua sustatuz, kudeaketan dauden enpresen gaikuntza lortzeko, lankidetza sustatzeko eta enpresa horiei proiektu berritzaileak ezartzen laguntzeko beharrezkoak diren gaitasun-maila emateko. Ildo horretan, Euskalit - Kalitatea Sustatzeko Euskal Fundazioari diru-laguntza izendun bat ematen zaio, EAEko industria-sarea osatzen duten enpresetan kudeaketa aurreratuko sistemak ezartzeko.

Acciones para impulsar la gestión de la innovación, mediante la promoción de la gestión avanzada, a fin de lograr la capacitación de las empresas en gestión, fomentar la cooperación y dotar a las mismas de los niveles de competencia necesarios para facilitar la implementación de proyectos innovadores. En esta línea, apoyamos con una subvención nominativa a la Fundación Vasca para el Fomento de la Calidad - Euskalit, con el fin de que se implanten sistemas de gestión avanzada en las empresas que forman el tejido industrial de la CAPV.

Prestakuntza-tresnak, erakundeetako pertsonengan berrikuntzaren kultura eta proiektu partekatu bateko kide izatearen sentimendua finkatzen dutenak, haien ezagutzak, trebetasunak eta abileziak zabalduz. Eta, ondorioz, ahaldundu egingo ditu erantzukizunak beren gain hartzeko, erabaki eraginkorrak hartzeko eta arazoak konpontzeko; beren gogobetetzea, motibazioa eta parte-hartzea areagotu, lan egiteko modua hobetu eta teknologia digital berrien erabilera areagotu eta enpleguen segurtasuna handitu. Berrikuntzaren aldeko konpromisoaren enpresa-kultura berriari laguntzeko ekintzak barne, talentua kudeatzeko ekimenei laguntza eta lankidetza emanez eta proiektu berritzaile berriak egiten lagunduz.

Instrumentos formativos que asienten en las personas de las organizaciones una cultura de la Innovación y el sentimiento de pertenencia a un proyecto compartido, ampliando sus conocimientos, habilidades y destrezas. Y, en consecuencia, las empodere para asumir responsabilidades, tomar decisiones eficientes y resolver problemas, aumente su satisfacción, motivación y participación, mejore la forma de trabajar y el uso de nuevas tecnologías digitales e incremente la seguridad de sus empleos. Incluyendo acciones de apoyo a una nueva cultura empresarial de compromiso por la innovación, mediante el apoyo y colaboración con iniciativas de gestión del talento y que contribuyan a la realización de nuevos proyectos innovadores.

Jarduera berritzaileari pizgarri fiskalak aplikatzea bideratzeko ekintzak, 2018ko Osloko Eskuliburuan jasotako berrikuntzaren definizio berriari jarraiki.

Acciones para viabilizar la aplicación de incentivos fiscales a la actividad innovadora, atendiendo a la nueva definición de innovación recogida en el Manual de Oslo 2018.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. BERRIKUNTZA		**1. INNOVACIÓN**
A) ETEetan berrikuntza lehiakortasuna hobetzeko funtsezko elementu gisa garatu eta integratu ahal izateko jarduerak bultzatzea.		**A) Impulsar en las pymes la realización de actividades que permitan desarrollar e integrar la Innovación como un elemento esencial de la mejora de su competitividad.**
1. Laguntza-programak		1. Programas de Apoyo
a) INNOBIDEAK: produktu/zerbitzuan eta negozioaren prozesuetan berrikuntza-proiektuak sustatzea, eta, era berean, Berrikuntzaren Kudeaketa txertatzea ahalbidetzen duten gaitasunak garatzea.		a) INNOBIDEAK: Promover proyectos de innovación en producto/servicio y en los procesos del negocio y, asimismo, desarrollar capacidades que les permitan incorporar la Gestión de la Innovación.
Onartutako INNOBIDEAK proiektuen kopurua.	**60**	Número de proyectos INNOBIDEAK aprobados.
INNOBIDEAKen onartutako funtsezko ekintza osagarrien kopurua.	**40**	Número de acciones complementarias clave de INNOBIDEAK aprobadas.
b) HAZINNOVA: enpresa txikian berrikuntza sustatzeko programa. Hazinnova Eragileen Sareko kide diren hurbileko eragileekin eta eragile sektorialekin elkarlanean egiten den programa.		b) HAZINNOVA: Programa de impulso de la innovación en la pequeña empresa. Programa que se realiza con la colaboración con agentes de proximidad y sectoriales, componentes de la Red de Agentes Hazinnova.
Onartutako proiektuen kopurua.	**500**	Número de proyectos aprobados.
c) BDIH-KONEXIO: Basque Digital Innovation Hub-eko azpiegituretan eta Europako beste DIH batzuetan teknologia digital eta jasangarriak esperimentatu, probatu eta baliozkotzeko laguntza-programa.		c) BDIH-KONEXIO: Programa de apoyo a la experimentación, testeo y validación de tecnologías digitales y sostenibles en las infraestructuras del Basque Digital Innovation Hub y en otros DIHs europeos.
Onartutako proiektuen kopurua.	**100**	Número de proyectos aprobados.
2. Berrikuntzaren Erosketa Publikoa.		2. Compra Pública de Innovación.
a) Sektore publikoaren erronkei erantzutea, merkatuan oraindik ez dauden irtenbideak garatuz.		a) Dar respuesta a retos del sector público a través del desarrollo de soluciones que aún no existen en el mercado.
Merkaturatu aurreko kontsulta-kopurua.	**2**	N. de Consultas Preliminares al Mercado.
Sustatutako baldintza-agirien kopurua.	**2**	N. de Pliegos promovidos.
3. Berrikuntzaren kudeaketa sustatzea.		3. Fomento de la gestión de la innovación.
a) Enpresa-berrikuntza eta -lehiakortasuna sustatzeko ekintzak, kudeaketa aurreratua sustatuz.		a) Acciones de fomento de la innovación y la competitividad empresarial a través de la promoción de la gestión avanzada.
Kudeaketa aurreratuko kanpo-kontrasteak erakundeetan. EGINDAKOAK.	**220**	Contrastes externos de Gestión Avanzada en las Organizaciones. REALIZADOS.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Kudeaketa aurreratuko, berrikuntzako eta lehiakortasuneko proiektu pilotuak (2 A fasea). ONARTUTAKO proiektu-kopurua.	**65**	Proyectos Piloto en Gestión Avanzada, Innovación y Competitividad (Fase 2 A). Número de proyectos aprobados.
4. Berrikuntzaren fiskalitatea.		4. Fiscalidad de la Innovación.
a) "Zerga-ondorioetarako kalifikazio-txostenak" emateko zerbitzua berrikuntza-jardueretara ere zabaltzea.		a) Ampliar la emisión de informes de calificación a efectos fiscales a actividades de innovación.
"Zerga-ondorioetarako berrikuntzako kalifikazio-txostenak" egindako kopuruak.	**200**	Número de "Informes de calificación de innovación a efectos fiscales" emitidos.
2. PRESTAKUNTZA		**2. FORMACIÓN**
1. PRESTAKUNTZA. Prestakuntza: berrikuntzaren oinarrizko alderdiei buruzko prestakuntza-ekintzak (Kudeaketa Aurreratua, Negozio Ereduak, etab.).		1. PRESTAKUNTZA. Acciones formativas en aspectos básicos de innovación (Gestión Avanzada, Modelos de Negocio, ...).
Berrikuntzako Oinarrizko Prestakuntzan parte hartu dutenen kopurua. (Estimatua: 240 emakume eta 360 gizon).	**600**	Número de personas asistentes a sesiones de Formación Básica de innovación. (Estimado 240 mujeres y 360 hombres).
2. "Enpresen Kultur Eraldaketarako Errendimendu Handiko Zentroa" proiektua abiarazteko laguntza.		2. Apoyo al lanzamiento del proyecto "Centro De Alto Rendimiento Para La Transformación Cultural De Las Empresas".
Egindako programen kopurua.	**20**	Número de programas realizados.

PROGRAMA

7311 ENERGIA ETA MEATZE POLITIKA ETA GARAPENA

PROGRAMA

7311 POLÍTICA Y DESARROLLO ENERGÉTICO Y MINERO

ARDURADUNA

EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA
PROIEKTU ESTRATEGIKOEN ETA INDUSTRIA ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIA

RESPONSABLE

DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
DIRECTOR DE PROYECTOS ESTRATÉGICOS Y ADMINISTRACIÓN INDUSTRIAL

MEMORIA

ENERGIA

Energiaren arloko Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzaren jarduerak baldintzatzen dituzten ardatz nagusiak bi dira: Euskadiko 2030erako Energia Estrategia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea.

2030erako Euskadiko Energia Estrategia (3E-2030) erakunde-politika bat da, gure Erkidegoaren energia-premia espezifikoetatik abiatuta, nazioarteko eta estatuko joera eta gidalerro nagusiekin bat datorrena, ahaztu gabe estatuko energia-sistemaren eta Europako merkatu baten parte garela, eta bete beharreko eta bete nahi ditugun konpromisoak eskatzen dizkigutela.

Estrategia horrek ikuspegia eta agertokiak planteatzen ditu 2030erako Euskadiren energia-esparruan, eta bete beharreko helburu zehatzak ezartzen ditu. Horretarako, zortzi jarduera-ildo ezartzen ditu hobekuntzetarako, kontsumoak murrizteko, sustatzeko, bultzatzeko eta, azkenik, gainbegiratzeko.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak jasangarritasun energetikoaren esparru juridikoa ezartzen du, bai euskal administrazio publikoen eremuan, bai sektore pribatuaren eremuan. Bietarako, energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko eta energia berriztagarriak sustatzeko eta ezartzeko neurriak bultzatzera bideratutako eginbeharrak eta betebeharrak artikulatzen ditu.

Testuinguru horretan, denbora-irizpide zehatzei lotutako oinarrizko helburuak eta neurri espezifikoak ezartzen ditu, eta horietako batzuk Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatu beharko dira 2024. urtean.

ENERGÍA

Dos son los ejes principales que condicionan las actuaciones de la Dirección de Proyectos Estratégicos y Administración Industrial en el área de la Energía: la Estrategia Energética de Euskadi 2030 y la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca.

La Estrategia Energética de Euskadi 2030 (3E-2030) se configura como una política institucional que, partiendo de las específicas necesidades energéticas de nuestra Comunidad, está en línea con las principales tendencias y directrices internacionales y estatales, todo ello sin olvidar que formamos parte del sistema energético estatal y de un mercado europeo que nos exigen compromisos que debemos y queremos cumplir.

Dicha estrategia plantea, en el ámbito energético de Euskadi para el año 2030, la visión y los escenarios y establece objetivos concretos a cumplir. Para ello, establece ocho líneas de actuación en mejoras, reducciones de consumos, promoción, fomento e impulso, y, finalmente, supervisión

A su vez, la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca establece el marco jurídico de la sostenibilidad energética, tanto en el ámbito de las administraciones públicas vascas como en el del sector privado. Para ambos articula deberes y obligaciones orientados al impulso de medidas de ahorro y eficiencia energética, y de promoción e implantación de energías renovables.

En este contexto, establece objetivos básicos y medidas específicas vinculadas a criterios temporales concretos, algunas de las cuales deberán materializarse en la Comunidad Autónoma en el año 2024.

Estrategiak eta Legeak ezarritako helburuak lortzeko Euskal Administrazio Publikoek duten inplikazioa funtsezkoa da, batez ere gainerako sektoreetan (pribatua, bizitegikoa, merkataritzakoa eta industriakoa) duten zeregin eredugarriagatik. Horregatik, Europako zuzentarauekin bat etorriz, Administrazioak bere instalazioen dinamizazioan, sustapenean eta hobekuntzan izan behar duen eginkizun garrantzitsua azpimarratu nahi da. Horretarako, energia kudeatzeko sistemen ezarpena bizkortzea, Euskal Administrazio Publikoaren eraikinen berritze-tasa bizkortzea eta energia-kontsumo ia nuluko eraikinen ezarpena ere azpimarratu beharko dira, bai eta garraio publikoa eta parkeko energia alternatiboak erabilera sustatzea ere.

La implicación de las Administraciones Públicas Vascas en la consecución de los objetivos marcados por la Estrategia y la Ley resulta esencial, fundamentalmente por el papel ejemplarizante que ejercen en el resto de sectores: privado, residencial, comercial e industrial. Por ello, se pretende también, acorde con las Directivas Europeas, acentuar el importante papel que la Administración debe tener en la dinamización, promoción y mejora de sus instalaciones, lo que exigirá poner el énfasis en acelerar la implantación de sistemas de gestión energética en las mismas, acelerar también la tasa de renovación de edificios de la Administración Pública Vasca y la implantación de edificios de consumo de energía casi nulo; así como fomentar el transporte público y la utilización de energías alternativas en el parque móvil.

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza da, zehazki, lege hau betetzen dela sustatzeko, garatzeko eta jarraipena egiteko arduraduna. Horretarako, araudia garatu behar du, datu-baseak diseinatu eta mantendu behar ditu, eta zerrendatutako espediente guztiak izapidetu behar ditu, bai eta eragindako sektore eta eragile guztiak kontrolatu, zabaldu, sentsibilizatu eta prestatu ere.

La Dirección de Proyectos Estratégicos y Administración Industrial es, en concreto, la responsable de la promoción, desarrollo y seguimiento del cumplimiento de esta Ley. Para ello, debe acometer el desarrollo normativo, el diseño y mantenimiento de las bases de datos y las tramitaciones de todos los expedientes relacionados, así como las labores de control, difusión, sensibilización y formación a todos los sectores y agentes afectados.

Bestalde, Euskadik energia berriztagarriak sortzeko egin duen apustua Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala izango da erreferentzia-esparru garrantzitsua. Plan hori 2024ko ekitaldirako behin betiko onartzea aurreikusten da, eta lehen aipatutako helburu energetikoei erantzun beharko die.

En otro orden de cosas, la apuesta de Euskadi por la generación de energías renovables tendrá como importante marco de referencia el Plan Territorial Sectorial de Energías Renovables, cuya aprobación definitiva se prevé para el ejercicio 2024 y que deberá dar respuesta a los objetivos energéticos antes mencionados.

Beste kapitulu bat eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriari buruzkoa da. Eraikinen energia-ziurtapenaren arloko eskakizunak, Europako Zuzentarauen ondoriozkoak, otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuan jaso ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol- eta erregistro-prozedurari buruzkoa.

Capítulo aparte es el relativo a la certificación de la eficiencia energética de los edificios. Las exigencias en materia de Certificación Energética de los Edificios derivadas de las Directivas Europeas, se reflejaron en el Decreto 25/2019, de 26 de febrero, de certificación de la eficiencia energética de los edificios en la Comunidad Autónoma del País Vasco, su procedimiento de control y registro.

Eraikinen ziurtapen egokia eraginkorra izan dadin, zuzendaritza honek tutoretza eta kontrol zuzen eta jarraitua egin behar du. Zuzendaritzak atxikita dauka erregistroa, eta bera arduratzen da ziurtagiriak eta tartean diren agenteak ikuskatzeaz eta kontrolatzeaz, hala nola ziurtapen-teknikariak, kontrol-agenteak, jabetza-erregistratzaileak eta higiezin-agentziak.

La efectividad de la correcta certificación de los edificios requiere de una actuación de tutela y control directa y continuada por parte de esta Dirección, que tiene adscrito el registro y es la responsable de la inspección y control de los certificados y de las y los agentes implicados, como personas técnicas certificadoras, agentes de control, registradoras de la propiedad y agencias inmobiliarias

Beste kapitulu bat auditoretza energetikoen inskripzioa eta kontrola da. 2012/27/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten duen 56/2016 Errege Dekretua betez, Zuzendaritzak enpresa handien energia-auditoretzen erregistroa garatu eta kudeatu behar du. Horretarako, datuen jarraipena, errekerimenduak, ikuskapena eta komunikazioa egiten dira

Otro capítulo más es el de inscripción y control de auditorías energéticas. En cumplimiento del R.D. 56/2016, de trasposición de la Directiva 2012/27/UE, la Dirección debe desarrollar y gestionar el registro de auditorías energéticas de grandes empresas. Para ello se realizan labores de seguimiento, requerimientos, inspección y comunicación de datos.

Energia-azpiegituren arloan, energia-horniduraren sistema hobetzeko oinarrizko helburuari erantzungo dioten azpiegitura berriak bultzatzen, sustatzen edo gauzatzen parte hartzen saiatuko da, energia-hornidura kalitatean eta kantitatean bermatzeko, eta berrikuntza-ekintzak eta efizientzia hobetzeko ekintzak abiarazteko eraikinen energia-kontsumoen kontrolean eta energien aprobetxamenduan.

En el área de las infraestructuras energéticas, se tratará de favorecer, fomentar o participar en la ejecución de nuevas infraestructuras que den respuesta al objetivo básico de mejorar el sistema de abastecimiento energético, para garantizar el suministro energético en calidad y cantidad y para emprender acciones de innovación y de mejora en la eficiencia energética, en el control de los consumos energéticos de los edificios y en el aprovechamiento de energías renovables.

Azkenik, energiaren arloko aurrekontu-programa honi dagokionez, 2024an energia-instalazioen arloan garatu beharreko jarduerak aipatu behar dira. Zuzendaritzaren eskumenak dira, besteak beste, goi-tentsioko garraio eta banaketako linea eta instalazio elektrikoak eta gasa garraiatzeko eta banatzeko sareak planifikatzea, arautzea eta gainbegiratzea.

Halaber, behe-tentsioko eta elektrizitatea sortzeko, energia berriztagarriko eta autokontsumoko instalazioen araudia garatzen eta gainbegiratzen du. Instalazio asko daudenez eta autonomia-erkidego osoan eragin handia dutenez, koordinazio-lan handia egin behar da inplikatutako eragile guztiekin, energia banatzen eta garraiatzen duten enpresekin, instalatzaile eta teknikariekin, kontrol-erakundeekin eta beste autonomia-erkidego batzuetako eta Estatuko administrazioko erakunde homologoekin.

Energia-instalazio horien guztien baimenei dagozkien administrazio-erregistroen tamaina eta antzinatasuna kontuan hartuta, erregistratutako datuen garbiketari ekin behar zaio, datu horiek eguneratzeko eta instalazioen segurtasuna hobeto kontrolatzeko.

MEATEGIAK

Euskadiko meatze-sektorea gure garapen ekonomiko eta sozialerako funtsezko sektore estrategikoa da. Ateratako baliabidea eraikuntzan, industrian eta eguneroko bizitzako aplikazio askotan erabiltzen da. Garapen teknologikorako eta gure biztanleriaren ongizaterako beharrezko baliabide gehienak ematen ditu.

Horretarako, euskal meatze-politika meatze-baliabideekiko sarrera iraunkor eta lehiakorra bermatzean oinarritzen da, eskariaren estaldura bermatuz, aprobetxamendu efiziente baten bitartez eta ingurumenaren zaintzaren bitartez.

1. Zuzendaritzaren eta zerbitzu teknikoen lan-jarduna harrobietako, erauzketa-jardueretako eta ustiategiak uzteari lotutako segurtasunaren eta egonkortasunaren arloko lehentasunezko jarduketetara bideratuta egongo da. Beraz, administrazioen arteko koordinazioa behar duten jarduketetan administrazio-lanak egingo dira, baldin eta lehentasunezkoak badira; besteak beste, jardun ahal izango da bertan behera utzitako meatze-egituretako jarduketa-planetik eratortzen direnetan, gauzatze-prozesuan daudenean, eta horiek lortzeak hainbat administrazioren esku-hartzea eskatzen duenean.

2. Meatze-ustiategietako eta tuneleko antolakuntzaren, ingurumen-inpaktuen eta segurtasun-balioztatzeen kontrola eta segimendua.

Por último, como afección a este programa presupuestario dentro del área de energía, caben reseñar las actuaciones a desarrollar durante 2024 en el ámbito de las instalaciones energéticas. Las competencias de la Dirección abarcan, entre otras, la planificación, reglamentación y supervisión de las líneas e instalaciones eléctricas de transporte y distribución alta tensión y de las redes de transporte y distribución de gas.

Así mismo, se acomete el desarrollo normativo y supervisión de las instalaciones de baja tensión y de generación eléctrica, energía renovables y autoconsumo. El elevado número y la relevancia de estas instalaciones conllevan un importante trabajo de coordinación y relación con todos los y las agentes implicadas, empresas distribuidoras y transportistas de energía, empresas instaladoras y personas técnicas, organismos de control, y organismos homólogos de otras comunidades autónomas y de la administración estatal.

Dado el tamaño y antigüedad de los registros administrativos que corresponden a las autorizaciones de todas esas instalaciones energéticas, es necesario emprender la depuración de sus datos registrados con objeto de su actualización y un mejor control de la seguridad de las mismas.

MINAS

El sector extractivo en Euskadi es un sector estratégico y esencial para nuestro desarrollo económico y social. El recurso extraído se utiliza en la construcción, en la industria y en numerosas aplicaciones de la vida cotidiana. Provee de la mayor parte de los recursos necesarios para el desarrollo tecnológico y bienestar de nuestra población.

Por ello, la política minera vasca está basada en asegurar un acceso a los recursos mineros de manera sostenible y competitiva, garantizando la cobertura de su demanda mediante un aprovechamiento eficiente y la preservación del medio ambiente.

1. La Dirección y los servicios técnicos mantendrán una línea enfocada a las actuaciones prioritarias en materia de seguridad y estabilidad en canteras, actividades extractivas y abandono de explotaciones. De esta manera, se plantea ejercer las funciones administrativas en aquellas actuaciones que, resultando prioritarias, impliquen coordinación entre administraciones. Entre éstas se podrá actuar en las que emanen del plan de actuaciones en estructuras mineras abandonadas, en proceso de ejecución, y que su consecución implique la intervención de varias administraciones.

2. Control y seguimiento de ordenación, afecciones medioambientales y valoraciones de seguridad en explotaciones mineras y túneles.

Hazkunde globalak lehengaietan eragiten duen presioak jasangarritasuna ingurumenaren ikuspegitik ezinbestekoa izatea eta egungo gizarteen erronka izatea dakar. Ingurumenarekiko errespetua ezinbestekoa da ingurumena eta oraingo eta etorkizuneko pertsonak aintzat hartuta. Beraz, batetik, agregakinen ustiapenak (hautsa, bibrazioak eta zarata) ingurumenean izan ditzakeen eraginak aztertu eta kontrolatu behar dira, meatze-estrategia jasangarria sustatzeko, eta, bestetik, meatze-ustiategiak edo -instalazioak segurtasun-baldintzetara egokitzen direla egiaztatu behar da.

La presión que el crecimiento global ejerce sobre las materias primas implica que la sostenibilidad sea vital desde la perspectiva medioambiental y se constituya como un reto de las sociedades actuales. El respeto al medio ambiente es una exigencia para con el medio y las personas presentes y futuras. Se trata, por tanto, por un lado, de analizar y controlar las eventuales afecciones medioambientales que la explotación de áridos puede conllevar (polvo, vibraciones y ruido), con el fin de fomentar una estrategia minera sostenible y por el otro comprobar la adecuación de explotaciones o instalaciones mineras a las condiciones de seguridad.

Era berean, berebiziko garrantzia du Sailaren eskumeneko meatze-egituren segurtasun-baldintzak balioesteak. Egitura horien elementu sentikorrak aztertzeko tresna egokiak ditu, beraz, partida bat bideratu da ustiategien aireko jarraipen fotografikoa egitera.

Asimismo, es de vital importancia valorar las condiciones de seguridad en que se encuentran las estructuras mineras de competencia del Departamento, disponiendo de las herramientas oportunas para analizar los elementos sensibles de las mismas, por lo que se destina una partida a efectuar el seguimiento fotográfico aéreo de las explotaciones.

3. Agregakinak ateratzeko jarduerei buruzko azterlanak eta txostenak, hidrokarburoak eta segurtasun proiektuak.

3. Estudios e informes sobre actividades extractivas de áridos, hidrocarburos y proyectos de seguridad.

Beharrezkoak diren baliabideak baldintza lehiakorretan eta ingurumenaren aldetik jasangarrietan lortzeko beharrak berekin dakar, kasu jakin batzuetan, erauzketa-jardueren sektorean beharrezkoak diren azterlanak eta txostenak egitea, baliabide horien kudeaketa orientatu eta planifikatu ahal izateko. Horrela, sektoreari horrela lortutako ezagutza eskuratzeko aukera emango zaio, bere jardueraren eraginkortasuna errazteko eta baliabide geologikoak arrazionalizatze aldera, meatze-administrazioari legeak agindutakoaren arabera esleitutako zeregin gisa.

La necesidad de obtener los recursos necesarios en condiciones competitivas y ambientalmente sostenibles conlleva la procedencia de elaborar, en determinados casos, los estudios e informes precisos en el sector de las actividades extractivas, con el fin de orientar y planificar la gestión de los mismos, permitiendo, así mismo, el acceso al conocimiento así obtenido al sector en aras de facilitar la eficiencia de su actividad, en línea de racionalizar los recursos geológicos como tarea atribuida a la administración minera por imperativo legal.

4. Energia Euskal Erakundearekin hitzarmen bat sinatu da, meatzaritzako laguntza tekniko geologikoa bermatzeko, meatze-katastroa eguneratzeko eta mantentzeko, 2027. urtera arte luza daitekeena

4. Se ha suscrito un convenio con el Ente Vasco de la Energía, con el fin de garantizar la asistencia técnica geológica minera, que tiene por objeto la actualización y mantenimiento del catastro minero, prorrogable hasta el año 2027.

5. Arabako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenari eutsi zaio, Arraia-Maeztu inguruan hondatutako meategiak berreskuratzeko 2025. urtera arte.

5. Se mantiene el convenio suscrito con la Diputación Foral de Álava, cuyo objeto es la recuperación de las zonas mineras degradadas en la zona de Arraia-Maeztu, hasta el año 2025.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1.Energia-azpiegiturak EAEen.		1.Infraestructuras energéticas en la CAPV.
Diruz lagundu beharreko proiektuen kopurua	**2**	N. de proyectos a subvencionar.
2.Iraunkartasun energetikoen jarduna.		2.Actuaciones sostenibilidad energética.
Jardunen aurreikuspena.	**3**	Previsión de actuaciones.
3.Ingurumen-inpaktuen kontrola eta analisia meatze-zonetan.		3.Control y análisis de afecciones medioambientales en zonas mineras.
Jardunen aurreikuspena.	**5**	Previsión de actuaciones.

PROGRAMA

7613 NAZIOARTEKOTZEA

ARDURADUNA

EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA
INDUSTRIA SAILBURUORDEA

PROGRAMA

7613 INTERNACIONALIZACIÓN

RESPONSABLE

DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
VICECONSEJERO DE INDUSTRIA

MEMORIA

NAZIOARTEKOTZEA

Urriaren 31ko 241/2017 Dekretuak, [2017/11/6ko EHAA, 211. zk.], Sociedad Pública Agencia Vasca de Internacionalización / Basque Trade And Investment SA sortzea baimentzen du eta Sociedad para la Transformación Competitiva-Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea SAk bertan parte hartzea. Azken horren helburu soziala, 2. artikuluan jaso bezala, ekonomiaren eta euskal enpresen nazioartekotzea da, eta enpresei eta eragile eskudunei sostengua ematea haien nazioartekotze-proiekzioan, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko inbertsioak erakartzeko. Horien kapital soziala osorik Sociedad para la Transformación Competitiva / Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea SAk (SPRI) harpidetuko du. Orain arte, nazioartekotzeko funtzio horiek Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen saileko Nazioartekotzerako Zuzendaritzak eta Sociedad para la Transformación Competitiva-Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea SAko nazioartekotze arloak betetzen zituzten.

2021-2024 aldirako Industria eta Nazioartekotze Plana izango da euskal enpresei kanpo-merkatuetara irekitzeko ekimenetan laguntzeko Gobernuaren ekintza zehazten duen ereferentzi-esparrua.

Nazioartekotzeko politika publikoaren helburu nagusia merkatu globalean txertatzeko euskal enpresak eta aldi berean, lehiakortasuna ahalbideratzeko, jausi kualitatiboa erraztea denez, 6 ardatz estrategiko zehaztu dira, aurrekontu baliabide egokiak beharko dituztenak

- Enpresen nazioartekotzerako laguntza tresnak.
- Nazioarteko jardueraren digitalizazioa.
- Kanpo-sarea eta nazioarteko posizionamendua.

INTERNACIONALIZACIÓN

El Decreto 241/2017, de 31 de octubre [BOPV n. 211, de 6/11/2017], autoriza la creación de la Sociedad Pública Agencia Vasca de Internacionalización / Basque Trade And Investment, S.A., y la participación en la misma de la Sociedad para la Transformación Competitiva-Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, S.A., con el objeto social de, según expresa el artículo 2, promover la internacionalización de la economía y de las empresas vascas, dando soporte a las empresas en su proyección internacional, así como a los y las agentes competentes, en la atracción de inversiones externas a la Comunidad Autónoma Vasca, cuyo capital social estará suscrito íntegramente por la Sociedad para la Transformación Competitiva/Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SA (SPRI). Hasta ahora esas funciones de internacionalización se realizaban por la Dirección de Internacionalización del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco y por el área de internacionalización de Sociedad para la Transformación Competitiva-Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea S.A.

El Plan de Industria e Internacionalización para el período 2021-2024 será el marco de referencia que determina la acción de Gobierno para el apoyo a las empresas vascas en sus iniciativas de apertura a los mercados exteriores.

Siendo el objetivo primario de la política pública de internacionalización empresarial facilitar un salto cualitativo en la inserción y competitividad de la empresa vasca en el mercado global, se definen 6 ejes estratégicos que van a requerir disponer de los oportunos recursos presupuestarios:

- Instrumentos de apoyo a la internacionalización empresarial.
- Digitalización de la actividad internacional.
- Red exterior y posicionamiento internacional.

Talentua sortzea eta bidea ematea.

Generación e incorporación de talento.

Eskuragarri dauden enpresen nazioartekotzea bultzatzeko zerbitzuak koordinatzea.

Coordinación de los servicios de impulso a la internacionalización empresarial.

Enpresak nazioartekotzeko politika publikoen adostasuna

Coherencia de las políticas públicas de internacionalización empresarial

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
